

PORRONTXO JAIAK

EGIA

13 14 15 16 17

IRAILA 1995 SEPTIEMBRE

©ICEN025

ICEDESIGN

Agurra

Eh! Aizue! Entzun al dituzue egiatarron ohiu eta zalapartak?.

PORRONTXOAK! PORRONTXOAK!

Eta Porrontxoen erantzuna?

BAGOAZ, LASAI! ASTEAZKEN ARRATSALDEAN ATERAKO GARA, IGANDERARTE EGIAKO KALEETAN ZEHAR IZANGO GAITUZUE GAU TA EGUN. IA OHARKABEAN, URTEBETEA PASA DA ETA KALERA ATERATZEKO IRRIKITAN GARA 14. EKITALDI HAU EZ DUGU EDO NOLA PASATZEN UTZIKO!

Entzun duzue beraz: kuadrilak gogor hari dira lanean; haurrak pozez txoratzen; gaztetxoak kalean egoteko ordutegiak negoziatu nahiean eta aiton amonak beraien neurriko ikuskizun bila dabiltza. Egia da Porrontxo jaiak, auzotar guzien neurrira egiten saiatu gara eta aurtengoak ere horrelakotxeak izatea espero dugu: GUZION NEURRIRA!.

Badugu aurtengoan jaiak ospatzeko esparru berria; Egiatarron lan eta borroka luzeari esker "PLAZA HAUNDIK" benetako plaza baten itxura hartu du, hain beharrezkoak ziren kirol instalakuntzen ondoan. Igerileku, haur parke edo ta kirol anitzdun pista irekiak faltan botatzen ditugu ordea, berauekin askoz ere era hobekiago eta zabal batez beteko liratekelarik auzoaren beharrak. Jarraitu beharko dugu halare plastikozko piszina ateratzen; Udaletxeko agintariek plastikozkoa genuela jakin omen zuten eta ez ziguten benetako egin nahi izan baina tira!. Gogoratu beharra dago, instalakuntza berriek eragiera edo aktibitate kulturalak, jaialdi edo antzekoak antolatzeko aurkezten dituzten era desberdinetako zailtasunak.

Jaiak ospatzear gauden honetan ere bai gogoratu eta agurtu nahi ditugu auzoko presoak diren Joxian, Mikel, Jose Mari eta baita ere auzoko errefuxiatuak.

ATERA GAITEZEN DENOK KALERA, DANTZA DEZAGUN, KANTA DEZAGUN, GOZA DITZAGUN PORRONTXOAK, amaieran harro sentitzeko arrazoirik ez zaigu faltako.

ONDO PASAU!

Agurra

Eh! Aizue! Entzun al dituzue egiatarron ohiu eta zalapartak?.

PORRONTXOAK! PORRONTXOAK!

Eta Porrontxoen erantzuna?

BAGOAZ, LASAI! ASTEAZKEN ARRATSALDEAN ATERAKO GARA, IGANDERARTE EGIAKO KALEETAN ZEHAR IZANGO GAITUZUE GAU TA EGUN. IA OHARKABEAN, URTEBETEA PASA DA ETA KALERA ATERATZEKO IRRIKITAN GARA 14. EKITALDI HAU EZ DUGU EDO NOLA PASATZEN UTZIKO!

Entzun duzue beraz: kuadrilak gogor hari dira lanean; haurrak pozez txoratzen; gaztetxoak kalean egoteko ordutegiak negoziatu nahiean eta aiton amonak beraien neurriko ikuskizun bila dabiltza. Egia da Porrontxo jaiak, auzotar guzien neurrira egiten saiatu gara eta aurtengoak ere horrelakotxeak izatea espero dugu: GUZION NEURRIRA!.

Badugu aurtengoan jaiak ospatzeko esparru berria; Egiatarron lan eta borroka luzeari esker "PLAZA HAUNDIK" benetako plaza baten itxura hartu du, hain beharrezkoak ziren kirol instalakuntzen ondoan. Igerileku, haur parke edo ta kirol anitzdun pista irekiak faltan botatzen ditugu ordea, berauekin askoz ere era hobekiago eta zabal batez beteko liratekelarik auzoaren beharrak. Jarraitu beharko dugu halare plastikozko piszina ateratzen; Udaletxeko agintariek plastikozkoa genuela jakin omen zuten eta ez ziguten benetako egin nahi izan baina tira!. Gogoratu beharra dago, instalakuntza berriek eragiera edo aktibitate kulturalak, jaialdi edo antzekoak antolatzeko aurkeztzen dituzten era desberdinetako zailtasunak.

Jaiak ospatzear gauden honetan ere bai gogoratu eta agurtu nahi ditugu auzoko presoak diren Joxian, Mikel, Jose Mari eta baita ere auzoko errefuxiatuak.

ATERA GAITEZEN DENOK KALERA, DANTZA DEZAGUN, KANTA DEZAGUN, GOZA DITZAGUN PORRONTXOAK, amaieran harro sentitzeko arrazoirik ez zaigu faltako.

ONDO PASAU!

Aupa neskak!

Desiatutako PORRONTXO JAIAK hemen ditugu berriro.

Dakizuenez jai hauetan joku eta ekintza asko antolatzen dira; hala ere Porrontxoetan, beste edozein jaietan bezala, ekintzetako parte hartzaile gehienak gizonezkoak dira.

Emakumeak!, neskak!, "Jadanik" taldekook jaien inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko zirikatzen zaituztegu, Porrontxo jaiak denonak baitira.. Beraz... arauak hautsi!, animau eta parte hartu!, emakumeak izateagatik ez duzu okerrago egingo.

Eta jaiaren hariari jarraituz beste gai bat datorkigu, tamalez askotan (batez ere jaietan) aipatu eta gertatzen den gai bat: Eraso Sexualak.

Bortxaketa ez da eraso sexual bakarra: ipurdia ikutzea, bapatezko besarkada hori, ahozko lore (ala ipurdizkoa?) lore nazkagarria... eskatu eta nahi ez dituzun gauza guzti horiek ere erasoak dira, zuk hala sentiturik.

Jai hauetan ez gaitzatela errudun sentiarazi, ez gure jazkeragatik, ezta dantza egiteko ere edota maitatzekoagatik; azkenean erasotuak geu baikara.

Neska! erasoa ez da behin eta emakume soil bati gertatutako ekintza bat, erasoa emakume guztion arazoa da.

ERASOEI ERANTZUN ZUZENA!
NESKAK, ONDO PASA ETA JAIAK BIZI!
MUTILAK, ONDO PORTAU!

JADANIK, Egiako Emakumeen Taldea

"PORRONTXO JAIAK" ABESTIA

Neska mutilak haurrak
eta helduak
danok pozez
kuadriletan
gora Porrontxo, aupa
atorrantiak
gozatu gure jaietan

Urtero ospatzen ditugu
jai zoragarriak
gure lanaz auzora
pozez erakutsiak
kuadrila guztien artean
erabakiak
horregatik diogu direla
guriak

Giro herrikoia dago
gaur gure auzoan
amnistiaren ametsa
beti dugu buruan
ikurrina jarrita dago
gure etxean
danok pozez salto ta
dantza kalean

AIZU ¡ JAIAK ONDO PASA !

ALKOHOLAK ETA TABAKOAK EZ ZAITZATELA BEREGANATU

BERE ERABILPENA ZURE ESKU DAGO

EZ APARKATU Ⓡ NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos-as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

TEJERIAK: Ostirala arratsaldetik igande gaua arte (kuadrilen Afaria).
A partir del viernes a la tarde hasta el domingo a la noche (Cena de cuadrillas).

KARMENGO AMA ETA TEJERIAREN ARTEKO KALEA: (OSTOTSA TABERNA):
Larunbatean kuadrilen jolasak eta igandean Herri kirolak.
El sábado juegos de cuadrillas y el domingo Juegos rurales.

TEJERIA ETA KARMENGO AMAK: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan Kronoeskalada. Viernes a la tarde en doble fila Cronoescalada.

Azken oharra: antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.
Nota: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

Festa Batzordeak eskerrak ematen dizkie Porrontxo jai hauen egitaraua egiten lagundu duten dendari eta auzokide guztiei
La Comisión de Fiestas agradece a los vecinos y comerciantes del barrio que con su ayuda han colaborado en la realización de este programa de fiestas

DATORREN URTEKO EGITARAUAN IRAGARKI BAT JARTZEA NAHI BADUZU, ARRANO ELKARTEAN JAI BATZORDERA DEITU DEZAKEZU.

SI QUIERES ANUNCIARTE EN ESTE PROGRAMA EL AÑO QUE VIENE PUEDES AVISAR A LA COMISION DE FIESTAS EN LA SOCIEDAD ARRANO.

OHARRA: Jaietan auzokideak animatzen ditugu terrazak apain ditzaten, ikurrina, kolorezko globoekin edo nahi duten bezala.

NOTA: Animamos a los vecinos a que colaboren en fiestas ADORNANDO las terrazas con la ikurriña, con globos de colores o como mejor se les ocurra.

ASTEAZKENA 13

19:30 *Buru haundi eta erraldoiak* **TIRRI-TARRA** *txarangarekin*
20:00 **Suziria** eta Porrontxoen jeitsierarekin **jaien hasiera**
20:01 **MARABUNTAREN JEITSIERA**
Koadrilen jeitsiera **TIRRI - TARRA** eta **TXALUPA txarangekin**

OHARRA:
Jeitsierako zenbait puntutan alkolemiako kontrolak esarriko dira

22:00 Koadriletako partaide ezberdinak euriaren jainkoari deituko diote. **Karaoke jokua Plaza Berrin**
23:00 Dultzemeneoa **LAIOTZ taldearekin**
23:30 **JATORRENAK Txaranga**
01:00 Kubatik ekarritako jokua: ***Banana Dantza***

OSTEGUNA 14

GURE EGUNA

12:30 **ORERETAKO dultzainariak**
17:30 Buruhaundi eta erraldoiak **IZENGABEKOAK txarangakin**
18:00 **HAUR KOADRILEN JEITSIERA**
19:30 **MOZOLOAK txaranga**
19:30 Haur dantzaldia Plaza Haundin **AZKONAK taldearekin**
20:00 **Koadrilen arteko jokuak** Plaza berrin
ping - pong, futbolina eta gastronomi leihaketa
21:00 Antzerkia **TRAPU ZAHARRAK taldearekin** Plaza Berrin
22:00 **TXALUPA txaranga**
23:00 Dultzemeneoa **IZOTZ taldearekin.**
Soka salto jokua atsedenaldian
01:30 **PISZINZA jokoa**
03:00 NO - DO a segidan **ZINEA**
"Dos tontos muy tontos"

OSTIRALA 15

8:30 Diana **ORERETAKO dultzainariekin**
12:00 Haurrentzat Pelikula Trebeskan
12:30 **ALKORTA ANAI ARREBA** trikitilariak
17:00 Haur jokoak eta Rokodromoa Antxeta plazan (Atotxan)
18:30 Buruhaundi eta erraldoiak **MOZOLOAK txarangarekin**
19:30 **Kronoeskalada eta gohitibeherak**
21:00 **Hildako koadrilen kideei omenaldia Plaza Berrin**

21:30 TRANSFER, DENOK A-2,
SANTOS INOCENTES eta TTAK auzoko taldeen kontzertua
22:00 JATORRENAK txaranga
23:30 Dultzemeneoa **BASAJAUN** taldearekin.Soka salto jokua atsedenaldian
1:00 TXALUPA txaranga
4:00 MOZOLOAK txaranga
5:00 Baratxuri zopa Arranoko kalestuan

PRESO ERREFUXIATU ETA DEPORTATUEN EGUNA

LARUNBATA 16

7:00 Diana **ORERETAKO dultzainariekin**
11:00 Gladys enea parkean: Haurrentzako txokolatada, Haur jokoak **AMALUR taldearekin** eta Haur ginola **TXIMAX Egunkariko ginol taldearekin**
11:01 Malabaristak, **HANKA TRANKA TRANKA PALU** taldeko **hankapaloak**, Porrontxo & Porrontxa, **GOLOKA taldea** eta **JATORRENAK txaranga**, auzoko kaleak alaituko dituzte
16:00 Koadrilen arteko jokuak: **ARRAULTZ BORROKA** (Ostotsa tabernaren aurrean) **boleibol** (Plaza Haundin) **ASTO LASTERKETA** (Hipodromoan, akaso)
16:30 TXALUPA txaranga
18:00 Urumean Estropadak
18:00 Eskubaloi partiduak Polikiroldegian:
JUBENILAK: C. D. EGIA BIDASOA — SENIORRAK: C. D. EGIA C. D. DE SAN JUAN
OMENALDIA DAVID RODRIGUEZ-i
20:00 MOZOLOAK txaranga
20:00 Antzerkia Plaza Berrin **KASKETA KABARETA taldearekin**

21:30 Koadrilen afaria **MAIDER eta ALAITZ trikitilariekin** Porrontxo txapelketa

23:00 Dultzemeneoa **TRAKETS** taldearekin
24:00 TXALUPA txaranga
24:00 Amnistiaren aldeko kalejira
1:30 ZUBIETAKO Ttuntturroak
3:00 JATORRENAK txaranga
5:00 Txokolatada Gaztetxean

IGANDEA 17

6:30 Diana **ORERETAKO dultzainerokin**
7:30 Oilaskoekin gosaria Atotxako Plazan
8:30 GLOBO BORROKA Atotxako Plazan
9:30 AITOR IKASTOLAKO TXISTULARIAK
10:00 MOZOLOAK txaranga
11:00 Esku pilota finala
12:00 Jotak Plaza Berrin **BROTES NAVARROS** taldearekin
13:00 Sagardo dastaketa **ALKORTA ANAI ARREBA**
Trikitilariekin eta **txalapartariekin**
14:30 **Bazkari Herrikoia Plaza Haundin**

ERROMERIA

17:30 HERRI KIROLA erakustaldia **IGELDOKO HERRI KIROLA TALDEAREN** eskutik. IGELDO eta EGIAko taldeen arteko Herri kirola
19:00 HERRI KIROLAK JOKUA Plaza Berrin
19:30 Sardinada **MAIDER eta ALAITZ** Trikitilariekin
eta **BIXENTE, IBON eta ALFONSO** Bertsolariekin
20:00 TRIKITIXA KONTRARIO TALDEA BIG BANDren eskutik
Kantaldia Plaza Haundin
21:00 MOZOLOAK txaranga
22:00 Koadrilen kalejira
23:00 Azken traka eta jaien amaiera

Udaletxea!

Piszina, Pasadizoa, Auzoetxea... NOIZ?

EGIAREKIN BETI GEZURRETAN

Egiako Elkarteen Koordinakundea

PORRONTXOETAN
GAZTETXEA BIZIRIK!!